



Aldaketa klimatikoaz jabetzeko ekimena

TOLOSA ▶ Ingurumenaren
Egunaren harira bihartik ostiralera
Aste Berdea antolatu du Udalak

EGITARUA ▶ Horma pinturak,
ibaiaren garbiketa, dokumentalak,
Uzturrera igoera... izango dira ▶ 3

ANOETA ▶

**Bihartik
aurrera
egitarau
zabala
jaien baitan**

Anoetarrak jai giroan
murgilduko dira
asteburu guztian ▶ 4

GAZTELU ▶

**Emakume
bat hil da
auto istripuan
N-110
errepidean**

Bi autok aurrez aurrez
jo zuten; emakumea
Idiazabalgoa zen ▶ 7



E. EZEIZA

Grafikagintzakoak hitzarmenaren alde

TOLOSALDEA ▶ Adegirekin akordioetara iritsi ez direnez, LAB,
ELA eta CCOOK deituta, mobilizazioetan hasi dira langileak ▶ 2

BEDAIO ▶

Bedaioiko I. Mendi Martxa antolatu dute hilaren 10erako

Tolosako Udalak eta Artubi elkarteak antolatuta, helburu
nagusia Bedaioiko inguruak ezagutzea izango da ▶ 5

colegio ikastetxea
**PRESENTACIÓN
DE MARÍA**

LANBIDE HASTAPENA
ESPEZIALITATEAK:

- ELEKTROGAILU KONPONKETA LAGUNTZAILEA
- INFORMATIKA EKIPOEN KONPONKETA LAGUNTZAILEA
- INSTALAKUNTZA SINGULARRETAN LAGUNTZAILEA: MEGAFONIA, ANTENAK, ALARMAK, PORTERO AUTOMATIKOAK

MATRIKULA ZABALIK

Mandasko Dukea, 1 • 20012 DONOSTIA
Tel./Faxa: 943 46 01 45 • CIPP.MARIA@terra.es

Publizitateko Grafika

GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOA

heziketa praktikoa
talde txikiak
praktikak enpresetan
2000 orduko iraupena

TITULAZIO OFIZIALA IKASTETXE PUBLIKOAN
Aurreinskripzio epea: ekainaren 1etik 8ra

BERRIA GIPUZKOAN

IES Usandizaga-PeñafloridaBHI
Felipe IV, 1A
20011 Donostia
Gipuzkoa
Tel 943454366

TOLOSA ▶

Diru laguntzak eskatzeko oinarriak ikusgai

Tolosako Udalari diru laguntzak eskatzeko eta honek emateko oinarriak zeintzuk diren Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean ikus daitezke, 2007ko maiatzaren 30ekoan. Era berean, Tolosako Udaleko webgunean ere agertzen dira. Diru laguntza hauek Udali kiroi departamenduan banatzen dira.

TOLOSA ▶

Aldaketak Zumardiaundian

Zumardiaundian, autobiako zubitarreko zutabeak konpontzen ari direla eta, orain hainbat arazo daude aparkatzeko. Areato egingo dira arazo horiek, Kondeaneko aldanen zeuden udal igerilekua botatzen hasi behar baitute. Gainera, herriko beste obra batzuk direla eta (Alondegiko lurrazpiko aparkalekua eta Rondilla kalearen luzapeneko) aparkatzeko beste leku batzuk egokitu beharra daude. Horregatik, baimendua dago Zumardiaundi barruan aparkatzeko, baina ibilgailuek Ibarra aldetik sartu beharko dute, Ibarra eta Apatia-erreak artean dagoen bidetik.

TOLOSA ▶

Hirukideko festaren inguruan zenbait ohar

Hilaren 9an ospatuko duten Hirukideko festa dela eta, egingo den bazkarirako txartelak erosteko epea irekita dago, baina gaur amaitzen da. Hauek erosteko hiru eskoletako edozein idazkaritzara jo dezakete interesatuek. Gurasoek parte hartzeko lehiaketak antolatu dituzte: patata tortilarena eta postre lehiaketa. Bestalde, festa antolatzen lagundu nahi duten gurasoek ikasleen tutoreei izena emanda egin dezakete.

TOLOSA ▶

Hirukideko ludotekan izen-ematea

Hirukide ikastetxeak urtero bezala ludoteka antolatu du 3-8 urte bitarteko haurrentzat. Ludoteka hilaren 22an hasi eta uztaillaren 27an amaituko da. Aurtengorako begiraleek jolasak, igerilekua, intererak, bisitak, tailerrak... antolatu dituzte. Ordutegia, 09:00etatik 13:00etara edo 09:00etatik 14:00etara (bazkariarekin) izango da. Izena emateko epea ekainaren 8an amaitzen da.

iragarki laburrak ▶**GALDUTAKOAK**

Giltzak. Leaburutik Belauntzarako bidean, Volkswagen auto baten giltza aurkitu dute. Bi aldiz joan da emakume bat Leaburuko tabernara giltza aurkitu ote duten galdezka. Telefono zenbakia: 627 36 98 87.

TOLOSA ▶

Irekita dago haur eskolan izena emateko epea

Tolosako Udalaren Haur Eskolan izena emateko epea irekita dago hilaren 15era arte. Matrikula egiteko, gurasoek Tolosan erroldatuta egon behar dute urtebete lehenagotik gutxienez. Informazio gehiago, egoitzan bertan edo 943 69 74 53ra edo 943 65 44 66 telefono zenbakietara deituta egin daitezke.

TOLOSA ▶

Mikel Belloso eta Asegarcekoak Bartzelonan

Hilabete honetan ohi baino bidaia luzeagoa egingo dute Asegarceko pilotariak, horien artean, Mikel Belloso tolosarrak. Izan ere, Bartzelonan bi partida jokatu behar izango dituzte. Bartzelonako Nafarren Etxeak antolatuta ekainaren 9an eta 30ean bi partida jokatu dituzte. Neurketak honako hauek dira: 9an Arbizu-Apraiz Diaz-Albizuriren kontra eta 30ean Mendizabal I-Eskudero Belloso-Oteizaren aurka.

EKONOMIA ▶



Grafikagintzako 200 langile inguruk manifestazioa egin zuten Tolosako kaleetan barna. E. EZEIZA

Grafikagintzakoak hitzarmenaren alde, manifestazioan

Adegirekin akordiora ez dira iritsi; LAB, ELA eta CCOO sindikatuek deituta mobilizazioetan hasi dira langileak

ESTI EZEIZA

Grafikagintzako Gipuzkoako hitzarmenaren alde manifestazioa egin dute Tolosaldeko zenbait enpresetako langileek. Adegirekin batera, LAB, ELA eta CCOO sindikatuak daude negoziazio mahaiean, hauek otsailean hasi ziren elkarrizketetan. Dena den, «patronalaren jarrera eta eskaintza atzerakoian aurrean» hiru sindikatuek mobilizazioetara joatea erabaki dute. Hori dela eta, duela bi aste grafikagintzako enpresa batzuetan kontzentrazioak egin zituzten: SAM (Tolosa), Zelatun (Zizurkil), Unipapel

(Aduna), Leizaran (Andoain), Eman (Usurbil) eta Savasa (Usurbil) enpresetan. Atzo berri, 200 langile inguruk manifestazioa egin zuten Triangulotik abiatu eta Tolosako kaleetan barna.

LABekoek emandako datuen arabera, enpresa handi guztiek egin dute bat mobilizazioekin, eta lantegi txiki eta ertainen %90ak. Horien artean dira: SAM, Unipapel, Cicarsa, Antalis, Borobil eta Laga. Izan ere, «eskaintza hobe bat mahai gainean jarri arte ez dutela onartuko» adierazi dute sindikatu abertzalekoek.

LAB, ELA eta CCOOek deitu-

tako mobilizazioen artean hiru greba egun egin dituzte aste honetan grafikagintzako langileek. Hala, Adegirik pauso berri eman ez duela ikusita, beste bi greba egun deitu dituzte datorren asterako. Lehendabizikoa asteartean egingo dute, hilaren 6an, eta hurrengoa, asteazkenean, hau da, 7an.

LABek langile hauen guztien erantzunak ikusita, arduraz jokatzeko eskatzen dio Adegiri. Bestalde, herenegun, LABen arabera 400 pertsona inguru bildu ziren Adegiren egoitzan aurrean protesta egiteko eta hitzarmen duin bat eskatzeko.

TOLOSA ▶ ARETO FUTBOLA



Laskoraingo neskak garaile Gipuzkoakoan

Erredakzioa ▶ Villabonan jokatutako areto futboleko Gipuzkoako txapelketan Laskoraingo kadete neskak garaile izan ziren, eta mutiletan, alebinak nahiz kadeteak txapelduorde geratu ziren. Partida guztiak «jai giroan» egin zituzten eta Olaederra kiroldegira hurbildu zen jende guztiak «gozatzeko aukera izan zuen». HITZA

GIZARTEA ▶

Klima aldaketaz kontzientzatzeko Aste Berdea bihartik

Bihar hasi eta datorren ostiralera arte antolatu ditu Udalak ekitaldiak; margoketa, dokumentalak, Uzturrera igoera...



Pasa den urteko Tolosako Aste Berdearen une bat. L. MONTES

INÍGO TERRADILLOS

Ingurumenaren Nazioarteko Eguna dela eta, Tolosako Udalak Aste Berdea antolatu du datozen egunetarako, «herritarrik kontzientziazatzeko klima aldaketaren eta Lurraren berotze globalaren inguruan».

BIHAR

Klima aldaketa marrazten. Triangulo plazan, goizean, Iñaki Epelde eta Jose Luis Longaron margolari tolosarrek eta parte hartu nahi duten herritar guztiek horma-pintura bat egingo dute klima aldaketaren gaiaren inguruan. Horma-pintura bukatu eta gero, haren zatiak banatuko dituzte herritarren artean, eta datorren ostiralera *Una verdad incomoda* dokumentala ikustera joaten direnean, berriz osatuko dute horma-pintura.

ETZI

VIII. Uzturrera igoera. Aurten ere, Ingurumen eta Kirol Departamentuek irteera antolatu dute Uzturrera. 09:30ean abiatuko dira Santa Klaratik, eta tontorrean, hamaiketakoak eta musikaz gozatzeko aukera izango da.

EKAINAK 5, ASTEARTEA

Ingurumenaren Nazioarteko Eguna (Tolosako berdez jantzita). Tolosar guztiak gonbidatuta daude egun honetan kalera berdez jantzita ateratzera. Hala, 12:00etan, Plaza Zaharrean, Tolosako ikasleek klima aldaketari buruzko manifestua irakurriko dute. 18:00etan, Haur Liburutegiak antolatuta, Errotako parkean, ipuin kontalaria eta literatura-kometen tailerra izango da. Ipuinek hegan egingo dute umeei eginiko kometekin.

EKAINAK 7, OSTEGUNA

Oria ibaiaren garbiketa. Tolosako bigarren hezkuntzako eta batxilergoko ikasleek Oria ibaiaren garbituko dute bi lekutan: Berazubiko zubian eta Naparzubian. Bestalde, 19:15ean eta 21:45ean, zine-forum saioan, *Apaga y vamonos* filma izango da ikusgai Leidorren. Pelikula honek erakutsiko digu zer arazo izan zituzten maputxeek En-desak Biobio ibaian presa egin



Apaga y vamonos filmeko une bat. HITZA

izanaren ondorioz. 70 familia pehuentxe-maputxeri gonbita egin zieten goi mendietan bizi-tzeko, 2.000 metrotik gora, eta han egon ziren, presa egiten hasi zirenetik, elektrizitatekerik gabe. Pelikula Juan Oiarzabal tolosarrak aurkeztuko du. 5 urtez bizi izan da Txileko maputxeekin.

EKAINAK 8, OSTIRALA

Ingurumen zinemako saio berezia. *Una verdad incomoda* dokumentala izango da ikusgai 19:30ean. Al Gore da lan honen zuzendaria. Dokumental honek aldaketa klimatikoaren eragin suntsitzailearen berri ematen du. Al Gore AEBetako lehendakariorde ohiak Lurraren egoeraren irudi kezagarria eta ezin argiagoko agertzen digu: gizakiaren jardunaren ondorioz, CO2 izugarri isurtzen da eta horrek berotze globala dakar. Dokumentaleko leloak honela dio: «Inoiz ikusiko duzun pelikularik beldurgarriena». Satelite bidez Lurrari egindako irudirik onenak ikusi ahalko dira, lehen eskuko datu zientifikoak jakin eta Lurraren berotze globalari buruzko ikuskizun harrigarriak jabetu. Sarrera euro bat ordaindu beharko da.

BESTE EKITALDIAK

Mezuak, egunkaria eta liburak. Aste berdea ondorengo ekitaldiek osatuko dute: Mezuak zabalduko dituzte kaleetan; Eskola Agenda 21en barruan, Tolosako ikastetxeetako ikasleek egindako egunkaria argitaratuko dute; Haur-Liburutegian, klima aldaketari buruzko liburuen aukera berezia izango da datozen egunetan.

HIRIGINTZA ▶

Etxebizitza tasatua arautzeko ordenantzak

ERREDAKZIOA

Maiatzaren 8an egindako Udaltzatarrak, lehen onarpena eman zion Tolosako Udala Etxebizitza Tasatua arautzeko Udala Ordenantzarri. 99 zenbakidun maiatzaren 22ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu dute ordenantza hau jendaurrean jartzen duen iragarkia. Interesatu orok 30 lanegunetan bere erreklamazioa eta oharra egin ahal izango ditu. Epea 2007ko ekainaren 27an amaituko da.

Espedientea interesatuen eskura egongo da Udaletxeko Hirigintza Departamentuan lanegun guztietako lanorduen barne (astelehentik ostiralera).

GIZARTEA ▶

Esklerosi anizkoitzaren alde txokolatada

ERREDAKZIOA

Bigarren urtez esklerosi anizkoitzaren aldeko ekimena burutuko dute gaur Gipuzkoan, Donostian, hain zuzen ere. Nafarroa Beherea plazan, 17:00etatik aurrera mahai informatiboak jarriko dituzte eta bertan Tolosako Gorrotxategi gozotegiko txokolatada erosteko aukera izango da 2 eurotan. Ekimenaren helburuak bereziki gazteei eragiten dien gaisotasunaren berri ematea, diru laguntzak biltzea eta boluntarioak erakartzea lanean jarraitzeko dira.



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

HILBERRIAK
URTEURRENAK
ESKERTZAK

Tolosaldeko eta Leitzaldeko
HITZAn jarri eta Gipuzkoako
beste 4 Hitzetan DOAN
agertuko da

HITZAK GIPUZKOAN
120.000 IRAKURLE

ESKELAK
19:00ak arte hartzen dira
tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info
Tel.: 943 65 56 95

hilberria ▶

Erasmus Atorrasagasti Arrieta
(Apaiza)

—Goian bego—

Gure ikastolaren
sorreatik egin duzun
lan guztia eskertuz



DONOSTIA, 2007ko ekainaren 1ean

ADUNA ▶ KULTURA

Poltsikoko antzerki lehiaketaren finala, gaur

ERREDAKZIOA

Asvinenean gau berezia izango da gaurkoa. Poltsikoko antzerki lehiaketaren finala jokatuko da Adunako arte eszenikoaren laborategian. Lau talde iritsi dira, horietako bat Tolosakoa. Lau lan finalistetan umorea da ezaugarri garraNtzitsuen.

Tolosako Casual taldeak *Ya le llamaremos* lanean kastin batean gertatzen diren egoera ezberdinak islatuko dituzte. Matxin iruñarrak *Jabon Ma-*

txin pour la matxin antzezlanean, garbigarrien iragarkiei buruzko parodia egiten du. Kontrapunto taldeak clown oinarria duen *Un perro escondido* obra taularatuko du. Mi cabeza que habla bilbotarrek *The Spanish Tour of Jennifer Huracan* lana emango dute.

Igandean, antolatzaileek eta parte-hartzaileek jaialdi-txo bat izango dute lehiaketari amaiera emateko. Ekitaldiaren baitan, Alacanteko La Caratula taldeak *Amores imposibles* antzeztuko du.

VILLABONA ▶ AISIA

Ikastolak bere jaialdia ospatuko du bihar

ERREDAKZIOA

Jesusen Bihotza Ikastolak bere jaia ospatuko du bihar Txerminen. Arratsaldean egingo dituzte ekitaldia, 14:00etatik hasita. Pilota eta pala partidak, futbol partidak, mus txapelketa, kros herri-

koiak egingo dituzte 16:30ak bitartean. Ordu horretatik aurrera irakasleek eta ikasleek prestatuturiko ikuskizuna ikusi ahalko da, baita gaztetxoaren eskulan eta argazkien erakusketa. 18:00etan pailazoak eta 19:30ean disko festa, afarime-rienda eta tonbolarekin.

ZIZURKIL ▶ AISIA

Urte bukaerako festa bihar, Otaño eskolan

ERREDAKZIOA

Pedro Mari Otaño eskolakoek urte bukaerako festa antolatu dute biharko. 10:00etan hasiko dira emanaldiak futbol partidekin eta haurrentzako jolasekin. Ondoren, ikasleen ema-

naldia eta aurtengo festaren berrikuntza izango den eskolako Batuka taldea. Bazkaria eta gero puzgarriak, gazteluen jokoa eta ludoteka. Mus txapelketa ere antolatu dute eta elkarren arteko jokoekin amaituko dute festa.

ANOETA ▶ GIZARTEA

Jai giroan murgilduko dira bihar anoetarrak

Asteburu guztian zehar ekitaldi ugari antolatu dituzte

ERREDAKZIOA

Anoetako herriko festen txupinazoa datorren asteazkenean izango bada ere, asteburu honetan hainbat ekitaldi antolatu dituzte. Alde batetik, bihar Koadrilen Eguna egingo da eta etzi Dantzari Txiki Eguna eta kirola kalera ateratzeko eguna.

Koadrilak izango dira, beraz, biharko protagonistak. Bazkaria eta afaria egingo dituzte frontoian eta egun guztian zehar hainbat ekitaldi izango dira. Biharkoan, dantzak eta kirolak ere izango dira nagusi. Beste ekitaldien artean, herri lasterketa, herri kirolak, pilota partidak eta dantzari txikien emanaldia ikusi ahalko dira eguneko zehar.

EGITARAUA ▶

BIHAR

09:00. X. Eskuzko Pilota Herri Txapelketaren finalak.

12:00. Koadrilen Eguneke txupinazoa.

14:30. Koadrilen bazkaria frontoian.

17:00. Koadrilen arteko jokoak plazan.

19:00. BTK batukada taldea.

21:00. Koadrilen afaria frontoian.

23:00. Laket Erromeria taldea.

ETZI

10:00. Herri lasterketa abiatuko da plazatik.

10:00. Baserritarren azoka plazan goiz guztian.

11:00. Herri kiroletako erakustaldia plazan.

12:00. Pilota partidak pilotalekuan.

12:00. Tolosaldeko bistularien kalejira herrian zehar.

13:00. Tolosaldeko bistularien kontzertua plazan.

12:30-14:00 eta

18:30-20:30. Erakusketak udaldebaxean: herriko artisten lanak, eskulanetako

taldekoenak eta jaietako kartel lehiaketan aurkeztutakoak.

17:00. Alegia, Irura, Anoeta Tolosa eta Villabonako dantza taldeak plazan. Ondoren,

Koldo Iparragirre trikitilariaren emanaldia.

GUTUN@K ▶

izena eta herria adierazi; HITZAK gutunak mozteko eskubidea du

Zorionak Anoeta! Zorionak Euskal Herria!

Anoetako ezker abertzaleak benetan zoriondu eta eskertu nahi ditu Anoetako herritarrak guregan jarri duten konfiantzagatik. Pasa diren 4 urte hauetan, egoera antidemokratikoan Udaleko ordezkariak lapurtu zizkiguten arren, herriaren alde egin dugun lana eta Anoetan aldaketa eman zedin hauteskundeetan egoteko egin dugun esfortzua balartzen jakin izan du herriak.

Emaitza oso onak izan dira ezker abertzalearentzat. Bai Anoetan, bai Tolosaldean eta baita Euskal Herri mailan ere, milaka izan baitira ezker aber-

tzalearen proiektuari eta gatazka konpontzeko proposamenari baiezeko borobilarekin erantzun dien herritarrak.

Emaitzak ikusi ondoren argi geratu da zergatik ez duten nahi ezker abertzaleak era normalizatuan parte hartzea hauteskundeetan. Beldurra diote ezker abertzaleak aukera berdinetan lehiatuz herritarren artean izango luken babesa eta indarrari. Zer gertatuko litzateke hauteskunde demokratikoak izan balira? Zer emaitza lortuko zituen orduan ezker abertzaleak?

Ezker abertzalea eta bere bake proposamenarekin amaitu nahi dutenei garbi esan diegu ezingo dutela, eta oztopo guztien gainetik lanean jarraituko dugula. Negozio handiak dituzte esku artean eta horiek

zalanztan jarriko dituen inor ez dute nahi ondoan. Inongo oposizioirik gabe inposatu nahi dituzte, isilean eta informazioirik zabaldu gabe, adibidez, AHT, superportua, errauskailuak...

Orain herriko festak datoz, beste gune batean, beste egoera batean, herritar guztiak identifikatuak egongo diren jaiak, azken urteetan ez bezala. Animatzen zaituztegu antolatu diren ekimenetan parte hartze-
ra, jai giroan.

Amaitzeko berresten dugu jaien ondoren helduko diogula udalgintzari. Lehenik Udaleko egoera aztertuz, eta ondoren denon parte-hartzea bultzatu eta herritarren beharrei erantzunez.

PERIKO PEÑAGARIKANO ETA MIKEL URKOLA ▶ ANOETAKO EZKER ABERTZALEAREN IZENAEN

hitza

Harpidedunen
txokoa

“Bertsotranpak”
Ander Lipus, Andoni Egaña...

2
LARUNBATA

19:00etan zinemara

Leitzako XXIX. Kultur Astearen baitan, larunbatean, bihar,
19:00etan egingo den bertso-tranparako
zozketatu ditugun bi sarreraren irabazlea hauxe da:

▶ Iker Elustondo (Berrobi)

zozketan parte hartzeko beharrezkoa da harpidedun ordaintzailea izatea

LEITZAKO KULTUR
XXIX. ASTEA
Ekain

BEDAIO ▶ MENDIA

Bedaioko I. Mendi Martxa, hilaren 10ean

Artubi igoko dute, helburu nagusia Bedaioko inguruak ezagutzea izanik

NEREA URBIZU

Bedaiotarrek Bedaioko I. Mendi Martxa antolatu dute hilaren 10erako. Bedaioko Artubi elkarrekin eta Tolosako Udalak antolatu dute mendi martxa neurtua. Hala azaldu zuten atzo iluntzean, Tolosako Udal Areto Nagusian egindako prentsaurrekoan. Nekane Izagirre, Jon Arreseigor eta Jon Azpiroz bedaiotarrek, Jokin Bildarratz Tolosako alkateak, Asier Bakaiakoak, kirol teknikariak eta.

Mendi martxa honen helburua, bedaiotarrek esan bezala «auzoa eta ingurua ezagutzea da». Mendia da Bedaio inguratzen duen ia guztia, eta oso bide politak ditu inguruan. Horregatik, auzoari bizia emateko eta merezi duten paisaiak ikusi eta ezagutzeko ibilaldiak eta

igandeko martxa hau antolatu dute. Kasu honetan, Artubi mendira igoko dira, Gipuzkoarekin eta Nafarroarekin muga egiten duen mendia, hain zuzen ere. Mendizale federatuek eta ez federatuek parte har dezakete. Izena emateko hiru aukera daude: www.bedaio.com, bedaioerrota@hotmail.com webgunean eta bestela egunean bertan, pilotalekuan, baina 07:15ean itxi egingo da.

Beste askoren artean, tolosaldeko eta leitzaldeko hitza izan da laguntzaileetako.

Arauk

Izen-ematea ekainaren 10ean 07:15ean itxiko dute. Mendi martxaren irteera 07:30ean izango da Bedaioko frontoitik. Irteera 20 pertsona egingo



Atzo emandako prentsaurrekoan, Tolosan. N. URBIZU



Etziko ibilaldian Artubira igoko dira. HITZA

DATUAK ▶

Martxa. Bedaioko I. Mendi Martxa.
Eguna. Ekainak 10, igandea.
Ordua. 07:30ean.
Hasiera. Bedaioko frontoian.
Ordu kopurua. 6tik 8ra.
Ezaugarriak. Neurtua.

Tontor garaiena. Artubi, 1.265 metro.
Izen-ematea. www.bedaio.com edo bedaioerrota@hotmail.com webgunean.
Salneurria. 5 euro.

TONTORRIK GARAENA

Artubi mendia igoko dute, Gipuzkoarekin eta Nafarroarekin muga egiten duen mendia, hain zuzen ere

dute 2 minutuko tartearrekin eta ibilbideko kontrol guztietan ordua eta sinadura jasoko dituzte.

Kontrol txartela 5 euroren truke banatuko dute eta bukaerako azken kontrola pasa ondoren zozketarako balea emango da. Amaierako kontrola 17:00etan itxiko da.

Beti errespetatu beharrekoa

Zakarrak kontrol guneetan izango diren zakar ontzietan uzteko aukera dago, eta esan beharrik ez da, ingurugiro naturala izanik, animaliak ez uxatu eta landaretza errespetatu behar direla, landa lurra eta jabetza pribatuak errespetuz zeharkatuz, kalterik eragin gabe. Bestalde, antolakuntzak ez du inolako ardurarik izango gertatu daitekeen edozein istripuren aurrean.

Aukera paregabea izango da Bedaioko inguruak ezagutzeko, eta zailtasun aldetik ez da horren konplexua.

KIROLA ▶

Kirola kalera ateratzeko egunarekin etzirako ekitaldiak antolatu dituzte

Altzon, Tolosan, Villabonan eta Anoetan izango dira, tartean pilota

ERREDAKZIOA

Jendea kirolak duen garrantziaz jabearazi nahian, bai gizarke kohesioaren ikuspegitik begiratuta, bai osasunarentzako dakartzan onurak kontuan hartuta eta bai beste kultura batzuekin harremanak izateko bitarteko modura ikusita, aurtengo Gipuzkoako Foru Aldundiak Kirola kalera ateratzeko eguna izendatu du etziko.

Altzoko Udalak eta Elordi Kultur eta Kirol Elkarteak ere ekintza honekin bat egin nahian, bi ekimen antolatu dituzte egun honetarako: ordu pare bateko natur ibilalditxo bat prestatu dute. Santa Barbara baselizatik 09:00etan aterako da eta 11:00ak aldera bukaera emango zaio herriko frontoian. Norberak bere hamaitaketa-

koa eraman behar du. Baina edaria berriz, frontoian izango da parte-hartzaileentzat. Bestetik, pilota partidak ere izango dira 11:30etik 13:00etara.

Tolosan kiroldegia doan

Tolosan, Usabalen 09:00etatik 14:00etara doan izango da. Uzturre igoko dute 09:30ean. Berazubini atletismoa izango da 11:00etatik 13:30era. Tenisa ere izango da bertan, 10:00etatik 13:00etara. Pilota ordu berdinetan izango da. Hauek guztiak adin guztietakoekin egin ditzakete. Antolatzailerak Udala, Kirolzer eta futbol kluba dira.

Anoetan jaien baitan

Anoetako festak direla aprobetxatuz, etziko eguna kirolari lotutakoa izango da: herri krosa

Anoetako plazan izango da 10:00etan, jarraian, herri kirolak 11:30ean, eta pilota frontoian, 12:00etatik aurrera. Kasu honetan antolatzailerak Udaleko festa batzordea izan da. Kirola kalera ateratzeko egun honekin festen lehen

Ongi etorri, Enaitz

ZORIONAK
Arantxa eta Anjel

egunei amaiera emango diete, eta asteazkenara arte ez dira jaiak berriz izango.

Villabonan

Bukatzeke, Villabonan ere bi ekitaldi antolatu dituzte Udalak, Kirolzerrek eta Olaederra

mahai tenis elkarrekin: Olaederra kiroldegirako sarrera doan izango da goizean zehar denentzat, 09:00etatik 14:00etara. Goizean zehar ere mahai tenisa izango da ikusgai denen gozamenerako. Hauek izan dira eskualdean antolatu dituzten ekitaldi guztiak.

TOLOSALDEA
GOIMAILAKO L.H. INSTITUTUA

→ Lanbide Heziketako Ikerketa eta Berrikuntzarako Institutua

Erdi-mailako zikloak: Euskaraz

- Mekanizazioa
- Soldadura eta Galdaragintza
- Ekipo eta instalazio Elektroteknikoak

IZEN EMATEAK / AURREMATRIKULA:
Ekainaren 1etik 7ra

Zure etorkizuna ziurtatzen dugu

Tel.: 943 65 11 47 • 943 65 06 64
idazkaritza@tolosaldea.com • www.tolosaldea.com

IBARRA ▶

**Ekainak 16ean
'Marathon Ciclo
Indoor 07'**

Ibarratik Misio Taldeak eta Bizkortzen Kirol Ekintzak *I. Ziklo Indor Maratoia* antolatu dute ekainaren 16rako, 17:00etatik 19:00ak bitarte. Egun horretan lagundu nahi duenari deialdia luzatu die. Horretaz gain parte hartzeko izena emateko epea zabalik dela jakinarazi dute antolatuzaileek.

KULTURA ▶

**Ekainean ipuin
kontalaria
ibarraldean**

Ibarraldeko herritan Idoia Sanchez ipuin kontalaria emanaldiak eskainiko ditu hurrengo bi asteetan. Ibarrran ekainaren 7an, ostegunean izango da, ondoren Bealantzan kontatuko ditu bere ipuinak, egun berean. Ekainak 13an berriz, Leaburu eta Gazteluren txanda izango da.

TELEFONOAK ▶

**Larrialdiak. ((112))
Osasuna.**

▶ **Alegialdea.** Osasun z.: 653212
▶ **Anoeta-Alkiza-Hernialde.**

Medikua: 65 23 39

▶ **Asteasu.** Medikua: 692423

▶ **Baliarrain.** Medikua: 889003

▶ **Berastegi-Elduain.** Medikua: 683361

▶ **Bidegoian.** Medikua: 681134

▶ **Ibarralde.** Osasun ebea:

672411

▶ **Ikaztegieta.** Medikua: 653329

▶ **Irura.** Osasun zentroa: 690720

▶ **Leitza.** Osasun z.: 948 510800

▶ **Orendain.** Medikua: 655595

▶ **Orexa.** Medikua: 682228

▶ **Tolosa.**

▶ Anbulatorioa, larrialdi: 461111

▶ San Esteban: 006800

▶ Gernikako arbola: 006900

▶ Amaroizko dispen.: 672637

▶ Asunzion klinika 675799 -

67 53 90 (larrialdiak)

▶ **DYA:** 672536

▶ **Gurutze Gorria:** 674888

▶ **Villabona.** Anbulat.: 006970

▶ **Zizurkil.** Aiztondo zerb.: 693930

Garraioak.

▶ Renfe: 902 24 02 02

▶ Donostiako autobusa: 361740

▶ Tolosaldea bus: 650621

▶ Leitzaran autob.: 948 221015

▶ **Taxia:** 670420

▶ **Taxia (Leitza):** 608 873016

Besterik.

▶ Ertzaintza: 538820

▶ Tolosa-Udaltzaingoa: 675858

▶ Tolargi: 650016

▶ Iurrumendi egoitza: 670325

▶ Tolosa gasa: 675320

IBARRA ▶ GIMNASTIKA

Garazi Egiguren Euskadiko txapelkun geratu da Leioan

A mailako kadeteetan Belabietako gimnastak bildu zituen puntu gehien

ASIER IMAZ

Joan den igandean jokatu zen Leioan (Bizkaia) Euskadiko Gimnastika Erritmikako Amateur Txapelketa. A mailako kadeteen artean Garazi Egiguren ibartarra, Belabietako Gimnastika Erritmikako gimnasta, lehenengo postuan sailkatu zen.

Euskal Autonomia Elkartearen hiru herrialdeak parte hartu zituen txapelketa eta bakoitzetik 6 gimnasta pasa ziren finalera, aurreko kanporaketak igaro ondoren. Finalean, gimnasta bakoitzak bina ariketa egin behar izan zituen; lehena uztaiarekin eta bigarrena mazekin, hain zuzen ere. Garazi Egigurenek bi ariketak bikain egin zituen, puntu gehien lortu zituelarik, ondorioz, lehenengo sailkatua izan zen.

Datorren igandean Getxon (Bizkaia) izango da Euskadiko finala infantil mailakoentzat eta Ibarrrako Belabietako Gimnastika Erritmikako Eskolatik bi gimnasta joango dira bertara; Miren Ezeiza eta Izaro Esnaola.

13 urteko txapelketa

Garazi Egigurenek 13 urte berterik ez dituen arren, 4 urtetatik dabil gimnastika munduan. Alebinetan Euskadiko Txapel-



Garazi Egigurenek Euskadiko Gimnastika Erritmikako Amateur Txapelketa irabazi zuen igandean. HITZA

keta 4. postuan geratu ondoren, «Donostiako Klub batek deitu zidan bertara joateko entrenatzera. Egunerok haruntza joatea eta konpetizioengatik

klaseak galtzeko arriskuaren ondorioz, ezetza esan nien. Orduan gainera argi nuen kanporatu joateko, euskal selekzioaren izenean joan nahi nuela». Gaur

egun gimnastika gozamen bezala hartzen du, «oso gustura ibiltzen naiz eta ahalik eta hobekien egiten saiatzen naiz, kirol konpletua da».

IBARRA ▶ AISIA

Etzi egun guztian zehar 'Uzturpeguna'-ren barneko ekitaldiak egingo dituzte plazan eta pilotalekuan

A. IMAZ

Udaberri giroak ikasturtea amaitear dagoela iragarri du jada. Hori dela eta, Uzturpe Ikastola eta Haur eskolak *Uzturpeguna* antolatu dute etzi, «ospakizun ezin hobea dugu eskuartearen. Goizean jaialdiarekin hasiko gara, bertan Haur Eskola, Haur hezkuntza, Lehen Hezkuntza, DBHko Lehen zikloko eta antzerki tailerreko ikasleek parte hartuko dute, dantza, antzerki, bertso eta zenbait zelebrekeria eskainiko dituztelarik». 13:00etan Pilota txapelketa egongo da Belabietako pilotalekuan eta ondoren,

bazkaria. Aurtengo berrikuntzetako bat bazkari gunean egongo den taberna izango da.

Arratsaldean, jolasak antolatu dituzte 15:30etik aurrera; trizikloak, kareetak, ogi masa edo kaxak egongo dira txiki-entzatek. Helduagoentzat koxkolarak, zakuak eta toka jokoak antolatu dituzte.

Uzturpeguna amaiteko, Ifiño Perurenarekin dantzaldia egongo da 17:00etatik 19:00etara. Antolatzaileek, gerturatzaren diren gurasoei edalontzien inguruan oharra bidali nahi izan die: «Ekar itzazu, arren, joan den urteko edalontzi horiak».



Haurrak jolasean joan den urteko *Uzturpegunean*. HITZA

LEITZA ▶ KULTURA

Gaur hasiko da Kultur Astea Aralar eskolako kontzertu batekin

Aralar Musika Eskolako ikasleek kontzertua emango dute gaur 18:30ean, zineman, XXIX. Kultur Astearen barruan



Aralar Musika Eskolako ikasleak, 2006. urteko ikasturte amaieran emandako kontzertuan. J.ASTIBIA

NAIARA GARZIA

Gaur hasiko da Leitzako XXIX. Kultur Astea, Aralar Musika Eskolako ikasleek zineman eskainiko duten kontzertu batekin. 10 egun hauetarako Leitzako kultur taldeak hainbat ekitaldi antolatu ditu, *Bertsotranpak* emanaldia, *Apazac obeto* izeneko ikus-entzunezko emanaldia, Aizkorri buruzko diapositiba proiektzioa eta ESAIT eguna, besteak beste.

Kultur Astea ohiko aste bat

baino luzeagoa izango da, 10 egun iraungo baititu, eta egun hauetan zehar emanaldi berezietz gain (*Bertsotranpak* eta *Apazac Obeto*, besteak beste) hitzaldi-mahai inguru asko izanen dira herrian, gai ezberdinen inguruan: astelehenean, esaterako, ihote zaharrak izanen dituzte hizpide, Jose Mari Esparza bere liburuaren inguruan mintzatuko da asteazkenean (*100 razones por las que deje de ser español*) eta Tomas Urzainki ere Gerra Zibilaren

eta memoria historikoaren inguruan mintzatuko da ostiralean.

Hitzaldi hauetaz gain, Leitzako Kultur Astean izanen diren ekitaldiei esker, bertsolaritzaz eta antzerkiaren arteko fusioa ikusiko ahalko dute herrian (*Bertsotranpak*). Aizkorri mendia mirestu (diapo proiektzio baten bitartez, asteartean) edo eta itsasoz Ternuara egindako bidai luze eta berezi bat ikusi, *Apazac Obeto* emanaldiaren bitartez.

XXIX. KULTUR ASTEA ▶ EGITARUA

GAUR
18:30. Aralar Musika Eskolako kontzertua, zineman.

BIHAR
10:00. Mendibil Mendi Taldekoen eskutik haur eta gazteentzako mendi irteera, herriko plazatik.
19:00. *Bertsotranpak* emanaldia, zineman.

ETZI
Goizez eta arratsaldez.
Artisau azoka eta talogileak.

EKAINAK 4, ASTELEHENA
20:00. Leitzako ihote zaharren inguruko mahai inguru aurreran.

▶ Larunbatetik ostiralera

Udaletxean ikusgai izanen da honen inguruko argazki zaharren erakusketa bat 18:00etatik 19:30era.

EKAINAK 5, ASTEARTEA
20:00. Mendibil Mendi Taldekoen eskutik diapositiba proiektzioa: *Aizkorri Neguan*.

EKAINAK 6, ASTEAZKENA
20:00. Jose Mari Esparza Txalaparta argitaletxeko editorearen hitzaldi-mahai inguru: *100 razones por las que deje de ser español*.

EKAINAK 7, OSTEGUNA
20:00. Jon Maiaren bidaiaren ikus-entzunezko emanaldi-hitzaldia, Peritzan.

▶ laz Ternuara egindako espedizioan oinarritua.

EKAINAK 8, OSTIRALA
20:00. Nabarralderen eskutik 1936ko gerra eta memoria historikoaren inguruko hitzaldi-mahai inguru Tomas Urzainkiren eskutik, Aurreran.

EKAINAK 9, LARUNBATA
Arratsaldean. Jokoak eta kale animazioa Gazteen egunean.
Iluntzean. Afaria Karrapen eta kontzertua gazteentzako.

EKAINAK 10, IGANDEA
Egun osoan zehar. Goizetik hasita hainbat ekintza izanen dira haurrentzat eta helduentzat Esait egunean.

LEITZA ▶ AZPIEGITURAK

Zoladura konpontzeko lanekin hasiko dira

Konponketa lanak astelehenean hasiko dira eta astebeteko iraupena izanen dute

N. GARZIA

Hurrengo astelehenean, ekainaren 4an, herriko zenbait kale eta bideren zoladurak berrituko dituztela jakinarazi du Udalak. Konponketa lanak irauten duten bitartean, kotxeak leku horietatik kendu beharko dira, trabarik egin ez dezaten.

Udalak jakitera eman duenez, hauek dira zoladurak konpontzeko lanak direla-eta konponduko dituzten kaleak: Elbarren kalea, suhiltzaileen egoitza osasun etxeraino eta Sakuluko bidea.

Elbarren kaleari dagokionez, Udalak zehatz-mehatz zein lekutan lanean ariko diren azaldu du, eta hauek izango dira lanean ariko diren puntuak: Arzallus harategiaren parean, Central banketxea eta Sagastimarrea kooperatiben etxean parean, Peritzako plazan eta Peritzatik Astizen etxerainoko bidea.

Konponketa lanak astelehenean hasiko dituzte eta astebeteko iraupena izanen dute. Astelehenean Manuel Lasarte kalean hasiko dira eta Udalaren arabera, osasun etxean amaituko dira obrak.

ARESO ▶ SOKATIRA

Areso laugarren gelditu da 680ko kategorian

640ko kategoriako lehen jardunaldian 3 puntu lortu zituen, eta hirugarren doa

N. GARZIA

Larunbatean eta igandean Aresok Euskadiko Lur Gaine Sokatira Txapelketan parte hartu zuen, bi kategoria ezberdinetan. 680 kilokoan finala jokatu zuen eta 640 kilokoan, lehenengo jardunaldia.

Larunbatean, 680 kiloko kategorian Aresok hiru puntu lortu zituen, Goierri eta Gaztedi Aren atzetik, eta orokorrean sailkapenean laugarrena gelditu zen 8 punturekin, Goierri, Mutriku eta Gaztedi Aren atzetik. Eguneko jardun-

naldia amaitu ondoren Mutriku eta Gaztedi A 9,5 punturekin berdinduta zeuden eta berdinketa haustean Mutriku irabazi zuen.

640 kiloko kategoriaren lehen jardunaldia Laukizen izan zen igandean eta Aresok 3 puntu lortu zituen. Eguneko sailkapenean arabera, hirugarren doa Areso, Goierri (4,5) eta Gaztedi A (4,5) taldeen atzetik. Mutriku laugarren doa 2 punturekin. Gaztedi B da azkeneko doana, puntu bakarra lortu baitzuen igandean.

TOLOSA ▶

Saltoki batean lapurtzeagatik atxilotuak

Ertzaintxeko agenteek 35 urteko M.H.B. eta 43 urteko K.A. atxilotu zituzten herenean, Tolosako saltoki batean hainbat objektu lapurtzea egotzita. Atxilotuak (bat lehenengo 11 aldiz atxilotu dute) Guardiako Epaitegiaren esku jarri zituzten atzo goizean.

GAZTELU ▶

Emakume bat hil da auto istripuan N-110 errepeidean

Gaztelun emakume bat hil zen atzo auto istripuan, N-110 errepeidean, bi autok aurrez aurre jo ondoren. Anbulantzia iritsi zenerako, hilda zegoen. 17:30ak aldera izan zen ezbeharra. Emakumeak 32 urte zituen eta Idiazabalgoa (Gipuzkoa) zen.

ESKUALDEKO EGUNKARIA ▶ 2007ko ekainaren 1a, ostirala ▶ V. urtea

AGENDA ▶

DEIALDIAK

Leitza. Goizean haur eta gazteentzako mendi irteera izango da eta 20:00etan *Bertsotranpak* zineman Ander Lipus eta Andoni Egañarekin, besteak beste, Kultur Astearen barne.

Alegia. *Ahots Bidaztiak* emanaldia izango da: Goikoetxea anaia-arrebak eta Iñaki Mezquitarekin. Haiekin batera, Alegiko herritarrak ariko dira Kultur Etxean.

Tolosa. XIII. Musikaria astearen barruan, Arimaz orkestraren kontzertua Leidor aretoan, Xabier Zelaia eta Kepa Martinez de Albeniz tronpetajoleak eta Ekhiñe Olano tronpajolearekin.

Tolosa. Galtzaundi Euskara Taldeak Txilipurdika ludoteka antolatuta du 3 urteko 10 urtekoentzat, uztailaren 2tik 31ra, 09:30etik 13:30era. Izen-ematea, Galtzaundin egin daiteke (Nafarroa Etorbidea 6, behea, 943 655004). Begiraleak ere behar dira.

GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur

Leitza. Erbiti, O. Lizarraga, 7. 112.
Ibarra. Ugarte, M.T. Euskal Herria, 46. 943 673248.

IRRATIA

Txolarre irrattia (107.5, 101.2 FM)

11:00-14:00. Tolosaldeko ahotsa magazina: eguraldia Joxe Landarekin, HITZaren errepasoa, elkarrizketak, agenda, lehiaketa...
18:00-20:00. Tolosaldeko ahotsa (errepikapena).
20:00-21:00. Asteko onena.
21:00-22:00. Igo bolumena.

▶ HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta irizien erantzukizunik.



Arimaz orkestraren kontzertua, gaur, Leidor aretoan

TOLOSA ▶ Musika zaleok hitzordua dute gaur gauean Tolosan. Izan ere Arimaz orkestrak kontzertua emango du Leidora aretoan, 20:30ean, Musikaria astearen baitan. Duela hamar urte sortu zen Tolosako Eduardo Mocoeroa Udai Musika Eskolaren baitan, sokazko instrumentuen ikasleen formakuntza osatzearren. Hasiera hartan Artiza izena hartu zuen, baina 2005/06 ikasturtean izena aldatu eta Arimaz izatera pasa zen. Sokazko instrumentu-jolez osatua dago (ikasle, ikasle ohi eta irakasleak), eta egitarauaren arabera beste instrumentuetako (haizea eta perkusioa) ikasle eta ikasle ohiak ere parte hartzen dute. Urte hauetan Gipuzkoa eta inguruko

herrietan kontzertuak eskaini dituzte eta Tolosako Musika Kape-raren emanaldietan ere parte hartzen du ospakizun erlijiosoetan. Alegiko Txintxarri Abesbatza, Donostiako Aita Garayoa abesbatza, eta orain gutxi Donostiako Santa Zezilia eta San Ignacio abesbatzekin aritu da. Taldea zuzendu dutenen artean musikari ospetsuak daude: Juan Jose Ocon, Miguel Angel Martinez, Sergio Zapi-rain, Julio Bravo, Garbiñe Orbegozo... Hala, mota ezberdinetako musikak jo dituzte: jazz, filmeetako soinu bandak, mariatxiak, mu-sika sakroa, barrokoa, klasikoa... Egun, Kepa Martinez de Albeni-zek betetzen ditu zuzendaritza lanak. HITZA

AGURRAK ▶



URTE ASKOAN
Iker Ropero Saizar (Alegia).
 Gaur urtebete. Zorionak familia guztia-aren partetik.



URTE ASKOAN
Guillermo. Epa cuarenton-cimelon. Neskalaguna topatu eta ezkontzeko garaia baduzu! Zure panda.

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.

▶ HITZAren egoitza Tolosan
 Araba etorbidea, 5 behea

▶ HITZAren egoitza Leitza
 Udaletzeko bulegoa

hitza
 agurren tartea

Urtebetetzak,
 urrezko ezteiak,
 ezkontzak, jaioberriak...



IES Hernani BHI
 A. ITURRIAGA Santa Barbara auzoa z/g - 20120 HERNANI - Tel.: 943 551188 FAXA: 943 552271
 K. LABAKA Karmelo Labaka 7 - 0120 HERNANI - Tel.: 943 551958 FAXA: 943 330550
 e-mail: institutua@hernanibhi.com www.hernanibhi.com

ELEKTRIZITATEA
 Ekipo eta instalazio Elektroteknikoak (Erdi Maila)
 Instalazio Elektroteknikoak (Goi Maila)

MEKANIKA
 Mekanizazioa (Erdi Maila)
 Proiektu Mekanikoen Garapena (Delineazio mekanikoa)
 (Goi Maila)

AURREMATRIKULA EPEA EKAINAREN 1etik 7ra

